

Gora egin du adinekoentzeko egoitzetan COVID-19 gainditu duten pertsonen kopuruak, 112 hain zuzen

Ez da ez heriotza gehiago ez kutsatu gehiago izan azken orduetan egoiliarren artean

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 24a. Apirilaren 22ko datuen azken eguneratzean, gora egin du Arabako adinekoentzako egoitzetan COVID-19aren positibo izan eta sendatu den pertsona kopuruak, guztira 112 egoiliarrek gainditu baitute gaixotasuna, atzoko eguneratzean baino hamaika gehiago eta duela bost egunekoaren halako bi.

Gainera, gero eta kutsatu gutxiago dago (300 pertsona), joan den astearen hasierako joerari eutsiz; kopuru hori txikiena da joan den apirilaren 4an argitaratutako eguneratzetik.

Egoitzek pertsona horietatik 8 ospitaleetara bideratu dituzte, osasun egoera larrian egoteagatik, eta koronabirusa daukaten pertsona gehienak (292) artatzen ari dira. Positibo eman duten kasuetatik, 164 Araban dauden zentro pribatuetako erabiltzaileak dira, 134 foru egoitzetan bizi dira, eta gainerako 2 pertsonak lurraldeko udal ekipamenduetan.

Ez da egoiliar gehiago hil. Koronabirusak sortutako osasun krisia hasi zenetik, guztira 134 pertsona hil direla kontabilizatu da. Egoitzetan nahiz ospitaletan hildako 134 pertsona horietarik, 72 zentro pribatutan bizi ziren, beste 60 foru egoitzetan eta gainerako 2ak gure lurraldeko udal zentroetan.

Zentro horiek 3.900 plaza inguru dituzte 96 ekipamendutan banatuta, egoitzen, etxebizitza komunitarioen eta apartamentu tutelatuen artean. Lau egoitzatik hiruk ez dute COVID-19 kasurik erregistratu.

Ezintasunen bat dutenentzako egoitzetan ez da aldaketarik izan. Zentro horietako bost pertsona sendatuta daude koronabirusa gainditu ondoren.